29garren URTEA. | N° 1468
29e ANNÉE.

LE NUMERO : 5 CENTIMES

ORZIRALEA EKHAINAREN 18an | 1915
VENDREDI 18 JUIN

Herrialde guzietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio : zoaz Eskual-Herrira

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS
Pays Basque.................... 4 fr. par an.
France.......................... 8 fr. —
Étranger .... 10 fr —

REDACTION ET ADMINISTRATION
69, Rue Bourneuf — BAYONNE — Téléphone 2.20

L'Administration décline toute responsabilité en ce qui concerne les annonces.

Eskualdunak eztu on egiten hemen agertu « annonces » direlakoez.

PUBLICITÉ
Chronique locale............ 1 fr. » » la ligne
Réclames.................... 0 fr. 60 —
Annonces.................... 0 fr. 40 —
Les insertions ne sont admises que sous réserves

Umezurtzak

Gerla huntarik lekkora gelditukoda lazterretan haur umezurtz hanitz; ba eta ere hanitz burhaso zahar, zituzten semeak galdurik, beren azken egunetako sustengurik gabe.

Zoin dire izanen urrikalgarrienik: semerik gabeko aitama ethenduak, laneko ez deusetako ahalik ez, eta hil arte nolazpeit bizi behar, eta ezin bizi? Ala haur ttipi, berenaz egiteko ez oraino heineratuak?

Urrikalgarrienik zoin, ez ginakike chuchen. Dakiguna da, batzu ala bertzeak ezin gehiago urrikalgarri direla.

Alta izanen da, bada ja, batzuetarik ala bertzetarik frango. Haur bat izanki, bat bakharra, eta hura gerlarat joana, han hil.

Bizpalau zituzten batzu ere ja badire orotaz gabetuak, oro hilik; edo azken bat hil ala bizi duten ez baitakite, preso duten othe Alemanian ala norapeit galdua, — disparu —!

Nork daki oraino zonbat diren galduko, zonbat hilen? Agian guti, bainan hori dakiena ichilik dago; gutienik dakiten batzu dire gehienik mintzo : hunenbertze iraunen, harrenbertze iraunen gerlak.;

Luze doakela, badakigu orok; noiz arte, nehork ez. Nehork gero, ez eta soldado aitzindariek ere, argituenek ez dakiten asko goiti-beheiti gertha baititake hor, gutien ustean.

Hilabetheak oraino ala, huntarik has, urthe osoa dezan iraun ala ez, segura da : burhaso dohakabe hanitz gelditukodirela, beren beso herdoilduak noren sorbaldari berma ukhanen ez dutenik.

Are gehiago haur aitarik gabeko, zango besoz eta buruz ahulegi beren buruen hazteko ala zaintzeko.

Soldado gerlan hilaren edo norapeit galduaren burhasoak, haurrak bezen dohakabe, han da emazte alharguntsa gaztea, haur zehez, lanez, jasan ahal eta gehiago zorrez edo nik oraino dakite zerez kargatua.

Nork lagunduko du? Nor zaio urrikituko? Bere baitharik eta luzara, nehor guti.

Etchaldea errekarat, etcheko jende ondarrak, gaztegiz edo zaharregiz, hilerrietarat.. edo ospitalerat.

×

Hel, hel elgarri lehenbailehen, odol bereko izan ala ez, ahaide hurbil ala urrun, ala osoki atze. Bakartasun lotsagarri bati dagozinek beha inguruetarat. Haur umezurtz bat edo bertze altcha, ondokorik ez dutenek, zituztenak gerlan hilik.

Badire aberats okhitu batzu, gerla aitzinean ja nehor ez baitzuten berenik, norekin goza bizi direno beren ontasunak, eta hiltzerakoan ere ez nori utz.

Halako batzuek ez hartuko beren gain gerlak aitaz gabetu haur gaichoetarik bat edo bertze? Oro bati ez utzirik ere, lagunduko ez adin bateraino, eta orduan *dolatuko;* hein on batean ez bederen ezarriko, gerlak umezurztu haur dohakabetarik bat edo bertze?

×

Berak hunkituak direnek, zituzten sustenguak, azken urthetako bihotzaltchatzaleak galdu dituztenek, are hobeki lezakete egin, iloba ttipi edo adichkiden haur, azken beltzean atze huts bat, hartuz alaba ordain, seme ordain.

Ahaide eskasean, atzetaratzekotz, hauta, preferentziaz, bertze arrazoin berezirik ez bada, familia haurrez kargatu batetarik bat; berehala denak laguntza beharretan, hauta jinagoa; berak altchatu, bere gogorako hazi eta hezi nahiago duenak, berech haurragoa.

Ez gitzazko solas huni gure baitharik lothuak; gutaz bertzerik direnetarik dugu hau entzuna, edo irakurtua.

Ez gira ere mintzo ororentzat, sudurra hor sarthuz nola nahi, herioak berritan zaurthurik dauzkan hil eta bizien artean.

Solas min hunek, tokitan orai beretik, tokitan sarrichagoko, erein dezake nor edo noren buruan chede on, chede zuhur, bakotchak bere onetako eta haur umezurtz gerlak jo dituenentzat urrikalmenduzko bat. Zonbeit bakar baizik ez balitz ere, hunek bihotza hautsiko diotenik, bakharno hek hobe... oro bakotcha bere gelditzea baino.

Zertarako gituen gerla hunek ez dakigu; ba ordean uste ez dugun asko ikusiko dugula hunen ondorioz, on eta tchar. On baino tchar gehiago, dautazue erranen.

Hartakotz dugu aitzinerat bilhatu behar, zer egin, umezurtzen nombrea bederen ttipitzeko ahalaz, eta heien zorigaitza eztitzeko.

Gaizki mintzatzea dea hau ?

Berriak egunka

Astezken, ekhainaren, 9an

Arras hiritik iphar aldean, *Neuville-Saint-Vaast*-eko etche gehienak ja baikinauzkan, azken ondarrez jabetu gira.

Dardanelles-etan gure itsas untziek tiroka chahutzen dituztelarik etsaiaren leihorrak, gure infanteria jabetzen da geroago eta azkarkiago *Gallipoli*-ko bazter osoaz.

Etats-Unis-etan *Bryan* ministro, erresuma arrotzekilakoa zaukanak demisionea eman dio *Wilson* Jaun Prezidentari, etzirelakotz ados Alemanaren alderako egitekoez : prezidentak nahi jazarri Alemaniari; ministroak ez. Hau itzaltzea marka da, bana bertze, amerikanoak Alemaniaren kontra direla, zeren dituen orotan oro manatu nahi, mehatchatu oro edo zoinen itsas untziak eta oro torpill ukhaldika chehakatzerainokoan

Hortaratzen badire, hobe segur. Etsai bat gehiago Alemaniak, ez nola nahikoa!

Ortzegun, 10ean

Lorette-ko aldean eta *Hauts-de-Meuse* mendi bizkarretan artilleria, gau ez egun, ezta ichiltzen. Hurriki bada hurriki bethi aitzinatuz goazi *Labyrinthe, Hébuterne* eta inguruetan etsaiari bethi lur pozi bat edo bertze hartzen diogula.

Italianoek, nahiz lanak ikusirik, beretzen dituzte bizpahiru hiri; hetarik bat *Monfalcone* delakoa.

Rusoeri *Koziovorenda* deithu oihan batean esku-gain pochi bat baderamakote etsaiak; bainan ordainez *Dniester* ur handiaren bazterretan garhaitzen dute eta presuner hanitz hartzen diote.

Itsasoan anglesari bi *torpilur* andeatzen daizko alemanak, sous-marin hetarik bat urpez igorririk jauz-araztera.

Hortan dute beren indar berezia; hori ere higatuz doakotelako ustekaria guk eta gurekilakoek; gutienik lotsa hor ere anglesak. Berek dakite beren berri.

Ortzira e, 11an

Azkar gaude gure hatzetan, etsaiak zazpi ahalak eginik ere *Labyrinthe, Hébuterne, Neuville-Saint-Wast* eta han gaindi.

Dardanelles-etan ez goazi gaizki; ez eta Italianoak ere oraino, hasirik deramaten sailean. Etsaia garhaitu dute bereziki *Monte-Neron.*

Rusoek egun onak dituzte hauk; *Dniester* ur handiaz haraindirat sarthua baitzuten eremu puska batean etsaia, gibelerat itzul-arazi dute, nahi bazuen eta ez.

Norte-Amerikak geroago eta azkarkiago diozka hortzak erakusten Alemaniari, ez dituenez haren itsas untziak utzi gogo edo zoin estakuruz jazarri gabe; gerlako legeak beiratu nahi ez baditu, harekin dituela ukhanen egitekoak. Hortan dire.

Ikusi behar, zer ondorio duten ekharriko elhe eta urhats, hauiek orok.

Larumbat, 12ean

Atzo, ortziralean egin diren othoitzak Pariseko hirian Bihotz-Sakratuaren eliza ederreanl Mundu bat han omen zen, emazte bezenbat gizon, edo gehiago; gizon hetarik erdiak soldado; hautarik hanitz ja gerlan ibiliak; kolpatu hanitz, herioa hurbildanik ikusi dutelakotz beren baithan sarthuak. Gochoki egiten zuten orok othoitz.

Frantziako bertze hanitz hiri eta herritan ere ortziralean da egin Jesusen Bihotz Sakratuari erresumaren kontsekratzea. Goizean mahain sainduek zer komuniant lerroak dituzten ikusi!

Salbatzalea urrikal dakigula. Herri hanitzetan zeremonia hunkigarri hori bihar iganderat luzatua da.

Gerla bethi azkar; atzo eta herenegu hartu tokiak nahi ukhan dauzku etsaiak huts-arazi. Hartarik ari dire gure soldadoak! ..

Amerikak Alemaniari bereakheltzen daizko; bere onetan dagola gizontasunaren zedarrietan, bakotcha berearen jabe utziz. Sinesten ez badu, hanbat gaichtoago haren; guretzat aldiz hanbat hobe.

Igande, 13an

Arras-eko aldean artilleria bethi burrumban. *Souchez*-eko sukreria, etsaiak azkarki bere zaukana, hartu diogu, zerbeit gostarik; eta orai, ez dauka berriz eskuraturik.

Oldarrean hartu daizkotegu hiru erreka lerro; ehun bat presunerez goiti; eta gizon hanitz hil.

Bertzetan, deus berriagorik.

Astelehen 14an

Atzo bezalatsu. Beljikanoek esku-gain puchka bat hartu dute, etsaiari harrasi batzu deseginez.

Bezperan guretu erreka ziloetarik parte huts arazi dauzku etsaiak; ez hanbat demboraren, Jainkoak nahi badu.

Rusoek *Ga izian* zaldiz jazarririk, garhaitu dituzte alemanak eta otrichianoak; 500 gizon hil daizkote; 2000 preso hartu.

Italianoen oldarra ezin hautsi dute Otrichianoek; bizhpahiru hiri hartzerat utzi diozkate.

Guk iphar-aldean garhaitzeko ditugun alemanak zoin azkarki diren kokatuak beren ziloetan, ez ditake erran; are gutiago sinets. Behar da ikusia.

Aleman aitzindariak harriturik dagozi, nola diotegun ihardukitzen ahal, egiten dugun bezala. Berak ere badira zerbeit, bainan gu nausi gituztela artilleriaz diote, egia den bezala nahi dutenek aithortu.

Asteart, 15ean

Atzo bezalatsu. Hilabethearen 6an guk hartu erreka zilo batzu nahi zauzkun etsaiak berriz beretu. Baduk hoberik! Jin bidez igorri dugu, zalhu gibelerat.!

Compiégne-ko hiriari gainerat igorri diote kanoi handi ukaldi bat gaitza; gerochago bigarren bat; ez batak, ez bertzeak nehor ez dute hil, ez hunkitu; ez eta ere deus andeatu.

Vindau ur handiaren bazterrean eman diogu etsaiari zafraldi bat ona. Atzo gu nausi; egun, etsaia; bihar berriz gu; hola dugu, diote rusoek, egun hautako goitibeheitia.

Anglesak eta Italianoak, zoin bere eskualde, ari dire gudutan azkarki.

Presuner pilichta bat eginik daude anglesak; italianoak, andana handi bat; hastapen ona dute oraino italianoek agian araberakoak ukanen ondoko egunak ororen onetan. !

BATASUNA

Gerla hasiz geroz, ez duzue kazeta huntan deus aipurik atzemaiten ez gorriez, ez zozialistez, ez eta ere lehenagoko gure bertze etsaiez.

Gerla hastean errana izan zen, behar ginuela, ordu arterainoko jazarkunde guziak bazterrerat utzirik, Frantses guzien artean bake handi sakratu bat egin, kampoko etsaieri batasunik ederrenean azkarki ihardokitzeko.

Badakizue eia bake hori ez duen gure *Eskualdun* kazeta hunek zinez eta osoki beiratu ?

Bainan guziek beiratu othe dute guk bezala ?

Badu hiru aste irakurtu duzuela, hemen berean, zer izkribatzen zion *de Saint Iayme* gure adiskideak *Dépêche de Tououse.* deitu kazetari.

Nola kazeta horrek erran baitzuen, behin baino gehiagotan, Aita Saindua gerla huntan Alamanen alde zela, eta ez Frantsesen; jokatzen ziozkan hamar mila libera ez zela hori hola. Erroman Italiako erregeren ondoan dugun embachadorearen erranerat behar zuten biek erori.

Ondoko aldian bazinuten zer ihardetsi zuen kazeta horrek : ez zuela jokatu nahi; beren artean eginikako lege berezi batek ez ziola holakorik haizu uzten.

Bizkitartean segur izan balire egiaz mintzatu zirela, zer padara zuten hamar mila liberaren irabazteko! Ezen berek eginikako legea berek errechki hauts zezaketen, egun batentzat bederen. Ez dire gero hamar mila libera non nahi atzemaiten.

Egungo egunean bereziki, ederki balia ziteken hetaz, hainbertze behardun baita bazterretan. Segur ez ziola kalterik eginen holako emaitza baten egiteak, Alamanian preso ditugun soldado gaichoentzat, edo etsaiek funditu herri dohakabeentzat.

Hori bazakien nik bezen ongi *Depechak.* Ez duenaz geroz egin, ez bide zen fida egiaz mintzo zela.

Holako kazetek barraiatu gezur hori, hainitzek sinhetsia dute, edo bederen gogotik dute errepikatzen.

Nik badut ene herrian guarda ondo bat hola mintzo dena. Erranen dautzu ere apezek egina dela gerla hau. Haren mihian apez madarikatu hoiek dituzte hoben guziak; deus ez diteke tzarragorik herri batean apezak baino.

Eta bizkitartean, mezan ibiltzen da igande guziez, bere liburutik begiak baztertu gabe. Nago ene baitan ez othe duenez liburu hori protestanta.

Aita Saindu zena, gerla hastean hil izan dena, gure etsaiekin bat othe zen? Ikusiko duzue huntarik. Ezen huna gauza bat ongi frogatua, eta nehork gehiago uka ez dezakena.

Gerla hasi bezen laster, Autrichiako embachadorea etorri zitzaion Aita Sainduari galdetzerat bere emperadorearen izenean, benedika zezan Autrichiako armada.

Aita Sainduak ihardetsi zion zer bihotzmin zuen emperadoreak ez zuelakotz haren galdea entzun gerla hunen ez hasteko. Erran zion zoin guti giristino agertu zen hortan emperadorea, eta ez zituela benedikatu nahi haren armadak.

Hortarik samin gelditu zen emperadorea; eta zenbeit egunen buruan Aito Saindua hil baitzen, ez zioten batere izkribatu kardinaleri bere doluaren erraiteko, aitzineko bi Aita Sainduak hil zirelarik egin zuen bezala. Hola erakutsi zuen mutur zagola Aita Saindu zenari buruz.

Eta oraiko Aita Saindu hunek ere ez othe du handizki frogatu, ez dela batere gure etsaien alde? Bizpahiru aldiz mintzatu da aski garbiki, etsai hoien tzarkerien gaitzesteko.

Gerla huntako desmasientzat egorri diozkate hogoi-ta bortz mila libera Belgikanoeri, eta berrogoi mila libera Frantseseri.

Orai, Italia gure alde gerlan hasi delarik, Aita Sainduak egin du eritegi handi bat soldado kolpatuen artatzeko. Zer egin zezaken gehiago, erakusteko norekin den bihotzez?

Hoik guziak hola ezagutuak direnaz geroz eta frogatuak, zertako dire bertzela mintzo kazeta batzu? Hoien chedea ez othe da, oroz gainetik, katolikoeri jazartzea Frantses guzien elgarrekilako batasunaz achola handirik gabe?

Frantses zenbeiten begietan katolikoak ez othe dire Alamanak baino etsaiago ?

Gerlarien berri

Egungo solas aldia labur igorriko dautzut. Gei tcharretik lan tcharra. Ez dugu berriagokorik egun hautan.

Bertzalde, berriak izanik ere zakutaraka, ez dakit batere ez othe nitzazken utz zahartzera; haiztegi baten itzalpetik hasi nitzautzu, ene ustez gostuan eta freskuran behar nintuela iragan bizpahiru oren, ahal bezala ebatsirik. Baduk hoberik!

Ulitcha luze zikhin batzuek bizirik iretsi nahi nute. Hauche da beroa!

Ezin urituz dabila bolta huntan aroa. Uriaren beharrik ez ginuke, guk segurik, nahiz freskatzeak ere zerbeit balio duen. Bainan hemengo lurrak egarrituak dire.

⁂

Hemengo berri handiena, gure bi errechimendu joan zaizkigula, lehenik Pauko bat, gero berriz Tarbekoa.

Norat egin duten, ez dezaket erran. Hauche bakharrik: eskuinedo bidea dutela hartu, Reims-eko alderat.

Hek gutiago ditugu beraz hemen. Lekuak berak ederki begiratzen gitu etsaiaren kontra. Ezagun da, gero-ta gehiago, indar guti dugulu eginen hemen gaindi.

Gure ezkerrean, kanoi azantz izigarri bat entzun dugu, igande goizean, luzaz. Soissons hiritik haratago jauzi bat egin dugu, Alamanen lerroak gureturik. Bi mila gizon herrautsi diozkategu hor.

Geroztik ez da harrabots handirik. Bizkitartean gure eskuineko herri batean izan da gudu bat aski borthitza, Ville aux Bois delako oihanen ezkinan. Gaina hartu dugu. Bertzalde, guk ginuen egina lehen urhatsa, bertze tokietn bezala.

⁂

Osagarria onean dago bethi. Frantzia barneko hirietan baino hobea da; eta ez guti.

Hiri hoitan badute bethi zerbeit errengura. Hemen aire handian, eritasunek ez dute lotki handirik.

Ondarkin eta zikhinkeriak erretzen ditugu ,hartako eginak diren labe batzuetan; ur guti edaten, ahal bezen guti, eta hura ere, seguretik.

Ospitale bereziak badire, zerbeit kutsu daukaten eritasunendako. Bertze batzu kolpatuentzat; erhoen etchea ere badugu hemen berean. Badire alabainan zonbeit bakhar, jada gerlaz kampo ere guti edo aski nahasiak zirenak, hemen laster galtzen baitute zuten zentzu ondarra. Eskualdunak ez dire hetarik. Odol hotzeko gizonak dire. Bertzeek ere laster sendatzen dire, deskantsuan zortzi egun iragan orduko.

Garratoinez eta saguz bazterrak betheak ditugu. Ez dute holako pestarik egin aspaldian, eta bizkarra legun derabilate. Bat garbitu bezen laster, bertze bat ikusten dugu zilhotik atheratzen. Alamana iduriak dire, hots, nombrez, bai eta ere okaztagarriz.

⁂

Kolpaturik ez dugu kasik batere. Noiz artio iraunen othe daukun deskantsu hunek, ez jakin. Hemen berean balinbagaude, ez omen dugu hanbat irrisku, bainan nork daki bethi hemen utziko gituztenez?

Jada badire han harat joanak, orotarik, artillur eta bertze. Bihar bertzen aldi ditake.

⁂

Aireplanak tzarrean ditugu. Alamanek ez daukute barkatzen airetan nausi gelditze hori. Nausi, eta nola! Aireplan berri k jin zaizkigu, izigarri zalhuak. Halako bat agertuz geroz, etsaiak egiten du lekhu.

Goizean goiz egiten daukute beren jokoa, argi puntan. Aste huntan ere bizpalau herriren gainerat aurdiki dituzte beren « bombak »!

Ikasi dute, ikasi! Hastean baino chuchenago ari dire.

Uzten zitut. Guti balinbada guti, ulitzek larrutua naukate, eta gain hartan norbeit ene ondotik dabila.

Ekhainaren 10ean. J. S. P.

Eskual-Herri

BAIONA. — *Panecau* karrikan zagon langile gazte zurgin batek bere burua hil du, 22 urthetan. Zerk hortaraturik? Ez ginakike chuchen.Lagunarekin bizkaturik guti edo aski, odolak bururat egin dioke; kanibet batez begitartea zaurturik odola zariola, etchetik athera eta joan zautzu berehala, urhats bizian, ur handiaren hegirat buruz.

Hara denean, jauzi urerat; gizon batek ikusirik, nahi ukhan du athera; igerika jarraiki zaio, bainan ez aski goiz; ordukotz iretsia urak, ezin hatzeman du, nahiz ikertu duen toki hura guzia zolaraino.

—

Donoztiar emazte bat, *Iuanita Casalda* deithua, bere hiritik Baionarako joanjina egiten zuena, komisionari bezala, hutsean hatzeman bide dute; berak dionaz jakin gabe sarthu ditu Frantziarat gure herriaz gaizki mintzo diren paper batzu. Jakin gabe othe da bera ere Frantziaz gaizki mintzatu?

Bigarren huts hori ukhatu du goraki. Halere kondenatu dute hiru urtheren preso.

Apel egiten badu. ez du gatz eskasez eginen.

IRIGOIN aneia hagin atheratzale aho arthatzalek jakin-arazten diote heien beharretan ditazkeneri, beren lantegia tokiz aldatna dutela, *5, rue de lo Monnaie*-tic, *1, Place du Château-Vieux*-erat.

HAZPARNE. — Peña *Larregaine*-tik joana gerlarat azpandar soldado bat, lehenago *Maroc*-en gerla hunen hastean ja kaporal zena, geroztik sarjant izendatua, berritan ohorezki aiphatua izan da — « cité à l ordre du jour — *Bordaldepe* deithua.

Urrian kolpatua, sendatu zen behin; berriz joaitea surat galdatu zuen; eta han ederki mintzarazi ditu bere buruaz lagun eta atzindari, oro; huna bereziki noiz eta nola, zer eginik; hitzez hitz frantsesetik eskuaraz itzulirik, haren balentriarik aiphagarrienak huna buruzagiek izkribuz agertu dituzten bezala :

« *Bordaldepek*, bi gauez segidan manatu ditu hura bezala beren nahi.tarik lurpezko erreka zilo batzuen bethetzerta igorriak ziren gizon batzu, etsaiek gutien ustean dinamitaz jauz-araz zitzazketenak.

« Kuraia gaitza erakutsi du, odol-hotz bat nehon bakhan ikusten dena, herioak den gutienik ez izitzekoa. Hura buruzagi, arizan dire azpiko zituen gizonak zazpi egunez ikharagarriko lan gaichtoan, bala eta bomba uhar batzu, babazuza bezen usu zaizko telarik heldu gainera.

« Lanjer handiko zerbeit eskukaldi zenean egiteko, bethi lehen izan da bere buruaren eskaintzale Bordaldepe.

Biba hura. Holakoek dauzkate lagun ahulak eta oro chutik; holakoeri esker goazi etsaiaren garhaitzera.

ITHO BAT. — *Laurent Poulon*, 12 urthe zituen muthiko bat, itho da, mainhatzera joanik.

Usaia omen zuen haur dohakabeak, burhasoen hegal fetik ardurachegi urrun tzeko.

Ortzirale arratsaldean, jan berri, joan bide da naza batean mainhatzerat; odolak bururat egin dioke, askori bezala eta hanche da itho.

Etchekoek arratsean berandetsirik, sbil hatu dute gau guzia. Soinekoak ur hegian utziak baitzituen hetarik ohartu dire nontsu ziteken ithoa; eta laster hatzeman dute, hila.

Jainkoak dituela urrikari haurra eta burhaso dohakabeak.

REOUVERTURE DU BUREAU D'ENREGISTREMENT DE HASPARREN. — L'Administration des Domaines informe qu'ayant pu disposer d'un employé pour remplacer le Receveur mobilisé ; elle a fait procéder le 8 juin à la réouverture du Bureau de Hasparren.

DONIBANE-LOHIZUNE. — Gan den igande arratsaldean, sei zazpi urtheko nechka ttiki bat erori da *Cibouruko* zubitik hurbil urerat. Haur gaichoaren oihuetarat jauzi egin du *Raymond Lavergne* arraintzaleak, eta haurra bizirik athera, hiltzera zoana.

Hiru hogoi eta gehiago urthe dituen gizonak egiteko, ez da gaizki.

Haurraren burhasoen eskerrekin irabaziak ditu bihoztun guzienak.

MERKATUKO PREZIOAK. - Joan den merkatu handlan abere hanitz agertu da, bereziki chahal eta zokor ausarki.

Ardiak beheiti doazila iduri du.

Baratzekari zer nahi ere bazen.

Huna zertsu egin duten :

Idi haragitakoek, kil. 23, 25 arte hori;
Zohorrek, halaber, 23, 25;
Migek, kil., 20 sos;
Chahalek, kil., 22, 24;
Urde , .. kintala 55, 59 arte hori;
Arroltze dotzena, 25, 28 arte;
Oilo parea, 7, 8 libera;
Oilanda parea, .. 4, 6 lib.;
Etche ilharra, libera 6 sos.

SARA — *Iuan Gaston*, bi gizon laborari, elgarren aneia, Saran hil zituena eta hetarik baten emaztea hiltzat utzi handizki kolpaturik, orai duela bi urthe hurbil, berritan Espainiako justiziak urkatzera kondenatua zuen.

Iruñako tribunalak kondenaturik apel egina zuen. Azken egun artio ez omen du etsitu, erregek bizia utziko ziola; bainan barkamendu eskatzale guziek deus ezin ardietsi dute. Sobera zen itsusia hura zen bihotz-gabearen krima, odol hotzean egina.

Hiltzerako bezperan gakoz ezarri dute hango legearen arabera apez kofesor batekin, eliza batean.

Urrikitzeko dembora ukan du; hanbat gaichtoago baliatu ez bada. *Garrote* deitzen den urkabilurrarekin lephoa tinkatuz hil dutela baizik ez dugu bertze chehetasunik.

Zer ametsak egin ahal dituen bereziki azken gauetan, oren latz hura hurbiltzearekin!

Berri beraz izkribatzen daukute Saratik :

Gan den astelehenean hamabortz Espanian *Irun*-go herrian urkatua izan da, presondegian berean, gizon bat.

Justiziaren orena etorri da, eta etzen goizegi. Zeren gizon hori Sara *Bechienbordako* krima egin zuena da. Bi gizonen hiltzaleak ez du ebatsia bere biziaren galtzea.

Orai arte preso atchiki dute lehenago eginak zituen ohointza batzuentzat, eta orai bizia kendu diote Sarako egin zuen gizon hiltze ikaragarriarentzat.

Egon zaitezte deskantsuan, Saratar maiteak; ez duzue gehiago ikusiko kriminel hura.

Uste zinuten behar bada ez zela zuzenik egiten Españian; hor duzue froga.

Erran zaharra ere da : mundu huntan jende ona galdua dela, tzarra aldiz abantailatua. Bainan kasu huntan ez da hala gertatu.

MAKEA. — *Bernard Héguy*, Makear polotari, gerlan kolpaturik herrirat jinak irakurtu ditu *Eskualdun*-ean *Chiquito* Cam boarraz eman ditugun laudoriozko lerroak

Ongi hartu du, zuzen den bezala, merezi duenaren ohoratzea; bainan halere guk hemen erran ditugunetan bazela zerbeit eskas iduritu zaio.

Uzten dugu bera mintzo, hitzak choilki frantsesetik eskuararat itzuliz, gure adichkide Makear pilotariaren herritarrek eta bertze irakurtzale eskualdunek errechkiago ditzaten kompreni :

« *Eskualdun*-aren egilea,

« Zuri gerlako berri heltzaletarik batek diona irakurtu dut : *Chiquito* ene pilotari laguna kolpatua izan dela *obus* batek hari hurbil eginik leher. Atsegin egin daudate Chiquito den soldado onaren laudorioek.

« Choilki zure berri heltzaleak uste gabetarik huts egin du, dionean, *Chiquitok* bere eginbidea bethe duela bertze eskualdun pilotari *batzuek* baino hobeki.

« Nola gutartean ez baita *bat bakarra* baizik izan eginbideari ukho egin dionik, ez othe zitaken hobe izenaren emaitea? Bertzeak oro garbi litazke orduan.

Pilotariak gire bertze zonbeit ere, eta ez zauku eder gutartean desertor *batzu* izan direla entzutea.

« Bi aneia d'*Elbée* gerlan beren eginbidea gizonki betherik *galduak* direnek — hil ala bizi, zer bilhakatuak diren ez baitakigu — ez dute ukho egin.

« Ez du ukho egin *D. Hirigoyen* Itsasuar ene pilatari lagunak; gerlan kolpatua da.

« Nik ere, buruilaren 21etik hunat zango bat herrestan derabilat; zango hau moztekotan ere egona niz; gutitarik dut beiratua.

« Kolpatuak ez bagine, han ginitazke gure eginbidearen bethetzen bururaino.

« *La Meuse* ur handiaren bazterretako *Craonne*-ko, *plateau des Dames* deithu toki aiphatuek badakite gure berri. Gure zizpak eta baionetak hemen ditugu lekhuko gurekin, ez girela ukho egonak, frantses eskualdun pilotariak.

« Ez ditut lerro hauk *Eskualdun*-erat igortzen, zuri gaizkien erraiteko, bainan zure berri heltzaleak, nor ere baita, jakin dezan ez dugula atseginekin irakurtu; gutarik bat laudatzearekin harek diona bertzez : badirela gutartean *batzu* eginbideari uko egin diotenak.

Bat ez da *batzu*.

Othoi barkha ene ausartzia.

Bernard HEGUY.

Makear pilotaria.

HENDAYE. — Besta berriko pro sesionean kleron eta tamburrekin aurkitzeko baimena galdatu dio Jaun Merari, Gazteria Katolikoarentzat, hunen buruzagiak.

Jaun Mera etzagon baiaren emaiterat; halere kontseiluaren abisua nahi izan du hartu; orok baimenaren alde eman dute boza, salbu jaun merak, ziolarik: soldado aitzindariek zuketela hor mintzatu behar; gerlan hil eta galdu hanitz direlakotz, ezkilak eta atabalak ichil egoitea hobe zitakela soldado aitzindarien baia ardietsi arte.

Camino Jaun Mera ohiak erran du, baimen hori bethi eman dena zertako ez zen orai ere emaiten ahal?

Haren hitza onetsi dute hemezortzi kontseilaritarik hamazazpik.

Jaun Mera berriak du bakarrik boza eman kontra.

BESKOIZE. — Herri guti da gerla hunek ja guti edo aski hunkitua ez duenik; batzu gehiago bertzeak baino. Beskoize-ko herria ez da azkenetarik; 1.125 arima dauzkan herritik baitziren 182 soldado joanak, *hamabi* baditugu hilak; eta zonbeit gizon ezkonduak, haurdunak.

LUR ESKU LANA. — Esku lanetarat ordu delarik heltzeko, beso eskasa dugu kampañetan.

Aro gaichtoak behin gibelatu lanak, eta orai egiteko diren guziak oro betan gainera jinak. Tokitan langilerik batere ez; orotan erdiak baino gehiago eskas; nor nola hel?

Iragan egun hoitan erran ginuen, elgar aldizka lagun zezaketenek ongi eginen zutela hitzhartuz lehenbailehen, auzoak elgarretaratuz egitea belharrak bederen, bakotcha bere heien gainean herrestan, ichtapea zabalik, higatzeko orde.

Geroztik jakina dugu herrichka batean horrela lothurik belharren egiteari, airoski deramatzatela; segurki ez direla urrikituak *Eskua dun*-aren kontseilua segiturik.

Menturaz bada bertzerik ere.

Hunek ez du erran nahi, hola jokatuz, hogoi gizon diren herrian izanen direla berrogoi ; bainan egundainotik ezagutua da, lan handichkoeri buruz deus halakorik ez dela, nola elgar lagunduz artzea. Banazkako lan handiak lotsatzen du gizona. Orotakoa da.

⁂

Huna lur esku lanetako laguntza bat gutienik igurikitzen ginuen tokitik heldu,... soldadoetarik; soldado gaizoek bertze lanik ez balute bezala, beren etcheak eta etcheko lanak utzirik hor harat joan eta, orai, soldado nekeen artetik, bertzendako nonbeiko laborari etchaldetarat joaitea baizik belhar ephaile!

Bizkitartean hola da : ekhainaren 5ean manua ekharri du gerlako ministroak : adineko soldado Frantziako lur erabilietarik helmenean direnak aitzindariek utziko dituztela, Prefetek izenak bildurik ezagut araziko dituzten tokietarat.

Langile beharretan direnek herrietarik prefeturalat galdeak hel, eta galde arau hitzhar soldado aitzindariekin.

Hamaboriz egunenizat ardiets ahalko dire soldado laborariak, behar arau, eguneko hunenbertzetan — tokiko usaiaren arabera — jan-edanak eta etzangia bertzalde.

Territoria edo *auxiliaire* direlakoetarik dire omen errechkienik ardiesten ahal.

Soldadoek berek galdatzea hobe, norat duten galdea edo beharra non dakiten erranez.

Etcherat ez herrirat galderik ez badute, ministroak ordrea eman du, prefetek argiak eskura ditzatela, non nor den laguntza eskasean, herrika.

Soldado langilerik nahi dutenek berek prefetari chuchen izkiria dezokete zertsu langile nahi duten eta zonbatsu.

Adreza prefeturalat « *bureau militaire* ».

Jaun prefetak helduko daizko izenak *général commandant de la Réégion* » delakoari.

Hau ontsa gogoan hartuz eta aski zalhu ernatuz, egin litake hor 15 egunez, lan zinkako bat ona. Ernatuko girea? ..

ZER ETA ZER

LAGUNTZEZ

Soldado gerlan direnen burhasoek eta emaztek berentzat eta haurrentzat — beharrak direlarik — ukhan ditzazketen laguntzez badabila elhe hanitz bazterretan; urhats hanitz ere askok omen derabilate, alferretan; deus ez dakitenik hanitz baita; zuzenaren ardiesteko argitu eta gidatu behar lituzketenek ez baitute askotan kharrik, ez eta zonbeitek borondate on izpirik.

Hau ere gerthatzen da: laguntza beharretan direnak ez baitaozi chuchen, ez argi bilha, ez eta eskukaloi baten galdez, nora joan behar bailukete eta hara; sineste gehiago baitute deus ez diren eta ez dezaketen batzuetan, zuzenezkoetan baino.

Hartua urhatsa, boz egunetan edo nik dakita noiz nola? .. beren beso luzeaz oro espantu diren batzuen gana joaiteko, gero deus eginen ez badautzute ere.

Elheak elhe, huna *Eskualdun* huntan egun hemenche, argi bat, ustez ja emana duguna, bainan hanitzek ahantzia dutena, edo ez ontsa gogoan hartua, bertze batzuen artean ginuelakotz bere demboran eman.

Berech emanez egun, behar bada, hobeki komprenituko dute, hau jakin es kasean, urhats alferretan dabiltzanek.

Senharrak gerlan dituzten emazteri edo han ibilirik etcherat itzuliak dituzte, neri gitzeie bereziki mintzo :

Errazu, emazte ona, noiz joan zen zure senharra gerlarat soldado? — Holako egunean: — Eta noiz egin zinuen *allakazione* delako laguntzaren galdea? Bigarren galde hori zure zerean ari da lehena bezenbat. Emazu arrapostua chuchen, eta egia deus gorde gabe. Noiz egin zinuen laguntza galdea? — Ordu berean, edo biharamunean, edo handik laster, aste berean edo halatsu. — Ontsa da, zuk ardiets dezakezu legeak ekartzen duen laguntza osoa, bermatuz.

Eta zuk, holakoak, galdea noiz egina duzu? — Zonbeit aste, edo bizpahiru edo gehiago hilabetheren buruan. — Atch! atch! .. emazte gaichoa, zu atheka tcharrean zira, deus onik atheratzeko. Baditake haste hartan bat edo bertzek athera duketen galdea egin duten egunaz goragoko *hartze gibelatua*; bainan burutziarik ezin eginez, .. nola erraiten da? .. ogi baino gasna gehiago zutelakotz hitzemana, ozka egin dute laguntza *galdatu egunean* : handik hunateko egunentzat emanen dutela heldu dena; galdea egin baino lehenagoko egunentzat, deus ez.

Ozka hortan kokatuak dire sosaren emaileak. Ez litakela ororl emaitekorik, gizona gerlarat joan egunetik emanez ororl, berechkunde bat egina dute hor, berehala laguntza galdatu dutenen eta berantegi egin dutenen artean.

Goiz ernatu direneri laguntza osoa; galdearen egitea berantzerat utzi dutenentzat *hanbat gaichtoago*; aski zuten goizago jaikitzea.

Hortako diren buregoetan izkirio lanean ari den hatek errana dugu : galdea egin den egunetik has, handik goitirako hartzea galda ditakela eta ardiets, aski gora mintzatuz.

Bainan galdea berant egin duenak eztuela zeren ametska egon : holakoak hau, halakoak hura ardietsi, hola eta hola jokaturik

Galdea egin den egunaz gorago deus ez dute nahi entzun sos errepartitzalek. Hortan gelditzeko ordrea dute omen orok ukhana.

Garbiki mintzo girea, ala ez?

Aihertar emazte gaicho bat badakigu hau jakin eskasean bortz urhats alfer eta hogoi-ta bortz pinta odo gaichto eginik dagona. Buruz buru ere hau erranen ginion, garbiki aithortu balauku, laguntzaren galdea egin baino lehenagoko *gibelaluaren* ondotik zela ibilia alferretan.

Hanitz bada hola hatzemanik.

BAKEA

Gerla hastean, orok elgarrekin bakea egin ginuen; bereziki politikazko makurrak ahantzirik, baketu ginen churigorriak, arrotz etsaiari buruz egiteko guziek bat. Zinez onhartu ginuen hori orok.

Bake hori, batasun hori baino zer zitaken hoberik? Deus ez, .. iraun baleza. Lanak baititu ordean, ezin iraunez.

Bakean bizitzeko elgarrekin oro, baitezpadako da, ez jazartzea elgarri, elgar ren kontra ez mintzatzea; deus ez erraitea, ez izkribatzea, ez egitea, batzuen edo bertzen kaltetan litakenik; edo batek errana bertzeari gaitzi lakiokenik, kalte hanbat ez eginikan ere. Bertzenaz nola nahuzue diraun bakeak? Ez ditakena da.

Guk gure aldetik ahal guzia egiten dugu, bakearen onetan. Baitire ordean zure ganik bakea nahi dutenak; berek zuri bake ahalik gutiena utziz.

Eskualdun huntan berriki orok irakurtu dukezue, bederen frantses izpi bat dakizuenek *Tolostar* kazeta bakerik nahi ez duen bati altchatu ziola gezur bat, eta parioa eskaini *hamar mila liberaz*, Frantziako lehen gizonetarik baten erranera nahi bazuen utzi erraitea : gezurra zenetz ala egia, kazeta haren ahopaldi bat, baizik eta Aita Saindua eta Alemaniako emperadorea hitzhartuak zirela, elgarren laguntzeaz gure kontra.

Badakizue, hemen berean irakurtua, Tolostar kazeta tzarrak ukho egin zuela, nahiz haatik ez aithortu gizonki, gezurra erran zuelakorik.

Gerla pitz eta kuku; ez dute oraikoa.

Ez dugu Tolosaraino joaiterik handik hunat *la Dépêche* delako kazetak ekharri atheraldi gaichto egia ez zelako baten altchatzeko.

Hemen berean, Eskual-herrian Cambon ezagutua da bere kideko kazeterarat berri heltzale bat, gogorako ez dituenen kontra zer nahi trufa dariola.

Delakoak ez du egundaino bertzerik jakin: bainan gaude, holako bat, ez gerlak ez deusek, hunkitzen ez badu, haren portolikeriak zerbeit ontzat hartzen dituztenak ez direnez hura baino gizonago?

MERCIER KARDINALEA

Beljikano kardinale *Mercier*, duela zonbeit hilabethe Aleman tzar hoieri berenak adi-arazi baitziozkaten, hil zezaten ere beldurrik gabe, harek oraino adi-arazi du bere boza; zuhurtziaz eta kuraiaz nehoren bozari zorrik ez duena.

Eta da mintzo aldi huntan Alemanen gaichtakeriez, bainan Beljikan berean herritar hain maite dituenen artean entzunik altchatu elhe makhur batzuez.

Elhe makhurra ez bide da bakarrik hemengo, Eskual-herriko belhar gaichtoa; bertzetan ere bada naski hartarik, eta bereziki Beljikan.

Gezur hedatzale batzu direla han gaindika dio kardinale handi horrek, diotenak: oraiko Aita Saindu hunek eta hunen aitzinekoak Alemania lagundu dutela, elhez eta diruz. Gezur higuingarri bat dela hori, dio goraki.

Dezagun altcha hortarik: gezur mota hori orotan badabilala; orotan bera.

Ziberoan

ALTZABEHETI

Aillande Carriquiry, goure herritarra orok maite eta hanitch estimatzen duguna, izan da azkarki kolpaturik burian, aitzineko egun hoietan, Frantzia iphar aldian izan diren guduka handietarik batetan.

Lehen berriak char jin ziren; haien arabera etzen geroko deus hounen egurukiteko biderik.

Ez da haatik sekula etsitu behar osoki : horra noun operazione batek salbatu dian Carriquiry; ezkapia du. Libourneko eritegi batetan da orai.

Felizitatzen dutugu, plazer handirekin Aillande Carriquiry eta haren familia.

BETHI GERLA

Ez deia arren izanen sekula urhentze bat? Bena bai, urhenturen da gerla, eta Frantziak bitoria ederra ukhenen du; sinetsi behar da hori behin eta hartan egon. Goure armadak badouatza bethi aitzina, emeki, bena irabaziak etchekiz.

Rusek, igaran egun hoietan, ukhen die arte gachto bat. Erhausten zutien Otrichienak. Hori ikhousirik, Alemanak egin dero heltura Otrichari, igorri deitzo zounbait errejimentu bere tropa hobenetarik. Ordu berian, nounbaitik ere Rusak gerthatu dira su gei edo *munizione* eskaz batetan. Gibeltu behar ukhen die amiñi bat. Bena berriz hasirik dira etsaiari azkarki buru emaiten.

Rusak gothor dira eta isi gaitzeko. Otrichien ez Alemanek ez die ikhousiren haien aztalik.

Italiener etzaie etsai handirik orano agertzen. Ez daude lo; ari dira gure hobenetan lekhu hartzen.

MAULE

MAULE. — *Iean de Souhy* « infanterie coloniale delakoan sarjant zena izendaturik izan da lotinant. Ederki!

ATHARRATZE

Merkhatuko preziouak

Behi chahaldunak	570	»»
Behi ernariak	500	»»
Chahal idigeiak	140	»»
Chahal gizenak	130	»»
Cherri hazkeiak	60	»»
Oilouak paria	5	50
Arraultziak dozena	0	90
Ogi zakia	28	»»
Arthoua zakia	21	»»
Gazna zaharra.....kiloua	3	20
» berria.....kiloua	2	50
Phiper lanthariak dozena	0	25
Thoumate lanthariak dozena	0	15

Imprimerie A. FOLTZER

LIVRAISON RAPIDE — 9, rue Jacques-Laffitte — PRIX AVANTAGEUX

BAYONNE

TÉLÉPHONE 1.96

LA PLUS IMPORTANTE — LA MIEUX OUTILLÉE — DE LA RÉGION

LES OBLIGATIONS DE LA DÉFENSE NATIONALE

Ces obligationse qu'un projet de loi récemment déposée assimile complètement à la rente pour les placements et remplois sont exemptés de tout impôt présent et futur. Elles sont émises jusqu'au 15 juin à 95 fr. 67 et du 16 juin au 1er juillet à 95 fr. 88. Elles seront remboursées à 100 francs en 1925 au plus tard. Compte tenu du paiement des intérêts par anticipation et de la prime, le placement ressort à 5.60 %.

Le taux élevé de l'intérêt, la certitude d'une augmentation de capital, l'exemption de toute taxe, même future, d'autres avantages encore, font de l'obligation de la Défense Nationale la première des valeurs : y souscrire est le premier des devoirs.

Maisons Recommandées

BAYONNE

BANDAGISTE-COUTELIER : Giral, Lessertol, sr., 5, rue Argenterie.

BIJOUTERIE : Articles de religion, Diharce 3, rue Argenterie.

CHARBONS ANGLAIS : Worms et Cie, armateurs, 8, Allées Boufflers.

CHAUSSURES : Lorda, 17, rue Port-de-Castets.

CHIRURGIEN-DENTISTE : Iratchet Cantero, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles.

EPICERIE EN GROS : Maison Urtasun, rue d'Espagne, 10-12. Téléphone N° 1.43.

GRANDS MAGASINS du PRINTEMPS, rues Port-Neuf et Gambetta.

MEUBLES : Maison Cassiau, 2, Quai Galuperie.

QUINCAILLERIE : A. Soulard, rue Argenterie.

TIMBRES-PRIMES de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.

TEINTURIER-DEGRAISSEUR : Maison Lague, 1, rue Lormand, Bayonne.

THIERY AINÉ & Cie VÊTEMENTS p' Hommes Jeunes Gens et Enfants

VINS ET SPIRITUEUX : Graciet, rues Sabaterie et Vieille Boucherie.

Crédit Lyonnais

Baionan Libertateko Plazan

Crédit Lyonnais Hartzen eta Pagatzen ditu

Amerikétako chekak

eta Paper suerte guziak.

Saltzen eta erosten ere ditu Paper eta titulu suerte guziak.

Crédit Lyonnais emaiten ditu publikoari behar dituen argitasun guziak tituluen erostean gainean bai eta ere kontseilu hoberenak dirau ongi pausatzeko.

Bada Jaun Eskualdun bat

Kredit Lioneko empleatua, gauza hortaz bereziki kargatua dena.

HOTEL DES BASQUES & DU BÉARN

Etienne ROUDET. 217, cours St-Jean

BORDEAUX

Ene etchea garatik hurbil, ebun metretan gurenetik, ongi ezagutua da AMERIKETARAT joaiten diren guziez; hemen segur dire izaiteaz beren harathunaten egiteko behar dituzten, errechtasun guziek

Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1842

J. LACHIQUE

BAYONNE

GROS - DÉTAIL

J. MONDRAN

2, place Notre-Dame, BAYONNE

Oihalera mota guzietarik

OROTAN BAINO MERKEAGO

Le Gérant : E. DUBOURDIEU.

BAYONNE. — Imprimerie FOLTZER.